

16/07 IRIZPENA

Maite Alonso, presidentea
Xabier Aizpurua
Begoña Garamendi
Juan Carlos Jauregui
Isabel Kapanaga
Mari Tere Ojanguren
Antxon Rodríguez
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2016ko irailaren 22ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **2016-17 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako kidegoetako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako maisu-maistren kidegoko LPZk arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.**

I. EDUKIA

Dekretu proiektu honek 8 artikulua, 9 xedapen gehigarri eta 7 eranskin ditu.

1. artikulua zenbait plazaren banakatzea eta integrazioa aipatzen ditu.

2.etik 6.era bitarteko artikuluek ikastetxe mota desberdinetako Bigarren Hezkuntzako kidegoetako irakasleen lanpostu zerrendak (LPZ) onartzen dituzte. Bigarren Hezkuntza, HHE, Hizkuntza Eskolak, Musika Kontserbatorioak eta Arte Eskolak I.tik V.era bitarteko eranskinetan daude.

7. artikulua Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetara atxikita dauden erlijio irakasleen LPZ jasotzen du, VI. Eranskinean zerrendatuta dagoena.

8. artikulua VII. Eranskinean azaltzen den Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako maisu-maistren kidegoaren LPZ onartzen du.

9. artikulua Urruneko Hezkuntzako Euskal Institutuaren (UHEI) LPZ onartzen du.

10. artikulua IX. Eranskinean azaltzen den Kirolene-Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Publikoko LPZ onartzen du.

1., 2., 3., 4. eta 6. xedapen gehigarriek soldaten osagarri orokorrak eta kargu eta erantzukizunen arabera esleitutakoak jasotzen dituzte.

5. xedapen gehigarria hizkuntz profilei buruzkoa da; 7.ak lanpostuak hornitzeko prozedura erregulatzen du; 8.ak ingelesez irakasten diren espezialitateak arautzen ditu eta 9.a eta azkena, berriz, hizkuntz indargarriko irakasle plazei buruzkoa da.

II. PLANTILLEN ANALISIA

Dekretu honetan jasotzen diren LPZetako kopuruak iazko ikasturtean bezalaxe mantendu dira: 9.292 plaza.

Horietatik 8.343 Bigarren Hezkuntzako kidegoetakoak dira (aurreko ikasturtean baino 144 gehiago) eta gainerakoak (949) DBHko lehen zikloan irakasten duten maisu-maistren kidegokoak dira, iaz baino 144 gutxiago.

LPZ organiko honetan gehien ugaritu diren plazak Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen Kidegokoak dira (142); eta horiei gehitu behar zaizkie UHEIko 65 plazak (2 LHko irakasle teknikoaren kidegokoak dira) eta Kiroleneko 7 plazak.

Bigarren Hezkuntzako eta dekretuan jasotako beste kidego batzuetako LPZ organikoko plazak, ikastetxe motaren arabera. 2015-16 eta 2016-17 ikasturteak.

	2015-16	2016-17	Δ Azken urtea
Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasle Kidegoak (BHI) *	6.356	6.498	142
Lanbide Hezkuntzako Irakasle Teknikarien Kidegoa (BHI)	1.018	1.021	3
Irakaskuntza Ertainetako Institutu Teknikoetako Irakasle Kidegoa (BHI)	19	19	0
HEOetako Katedradun eta Irakasle Kidegoak	314	314	0
Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasle Kidegoak	111	111	0
Arte Plastiko eta Diseinuko Katedradun eta Irakasle Kidegoak	11	11	0
Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetako Lan Kontratudun Langileak (BHI)	183	184	1
HEOetako Lan Kontratudun Langileak	5	5	0
Gradu Ertaineko Musika Kontserbatorioetako Lan Kontratudun Langileak	25	25	0
Arte Eskoletako Lan Kontratudun Langileak	9	9	0
Erljio Katolikoko Lan Kontratudun Langileak (BHI)	72	72	0
Urruneko Hezkuntzako Euskal Institutuko langileak	69	67	-2
Kirolene, Kirol Irakaskuntzen Zentroko langileak	7	7	0
Bigarren Hezkuntzako kidegoak guztira	8.199	8.343	144
Maisu-maistren kidegoa	1.093	949	-144
Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako eta beste batzuetako plantilla organikoak guztira	9.292	9.292	0

(*) Lehen taldeko 6.498 plazetatik 6.346 institutuetaoak dira eta 152 HHEkoak.

Bigarren Hezkuntzako kidegoak jomuga zentroen arabera banatuz gero, ikus liteke Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako plantilla organikoan 139 plaza gehiago daudela eta HHE ikastetxeetakoan 5 plaza gehiago.

Bigarren Hezkuntzako kidegoetako LPZ organikoetako plazen banakapena, jomuga zentroaren arabera. 2015-16 eta 2016-17 ikasturteak.

	2015-16	2016-17	Δ Azken urtea
Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeak era beste batzuk	7.577	7.716	139
Helduen Hezkuntzarako Ikastetxeak	147	152	5
Hizkuntza Eskola Ofizialak	319	319	0
Gradu Ertaineko Musika Kontserbatorioak	136	136	0
Arte Eskola	20	20	0
Bigarren Hezkuntzako kidegoak guztira	8.199	8.343	144

Plantillen euskalduntzeari dagokionez, ikastetxe guztietako langileen %78k dauka HE2 eta portzentaje hori iazko ikasturteko berdina da. Aipatzekoak dira DBHko maisu-maistrak (%94) eta HHEko irakasleak (%93). Bestalde, erlijioiko irakasleen kasuan %90ak du HE2.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako LPZ organikoetan 2HE duten plazen portzentajea, zentro motaren arabera. 2015-16 eta 2016-17 ikasturteak.

Ikastetxe mota	2016-17			2015-16	Δ Azken urtea	
	2HErekin	Guztira	2HE	2HE		
Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeak	Bigarren Hezkuntzako kidegoak eta beste batzuk	5.810	7.716	%75	%76	-%1
	Maisu-maistren kidegoa	896	949	%94	%93	%1
Helduen Hezkuntzarako Ikastetxeak	141	152	%93	%91	%2	
Hizkuntza Eskola Ofizialak	255	319	%80	%76	%4	
Gradu Ertaineko Musika Kontserbatorioak	93	136	%68	%68	%0	
Arte Eskola	8	20	%40	%40	%0	
Guztira	7.203	9.292	%78	%78	%0	

Kontuan hartzen badugu Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako (BHI) *funtzionamendu plantilla* osoa, ikusiko dugu, Hezkuntza Sailak emandako informazioaren arabera, Bigarren Hezkuntzako kidegoak hazi egin direla eta orain 195 gehiago direla, 2015-16ko 7.912 plazetatik 2016-17ko 8.107 plazetara igaro direlarik.

Maisu-maistren plantillan, 62 plaza gutxiago dago. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako plantilletan 133 plaza gehiago egongo dira aurtengo ikasturtean.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako funtzionamendu plantilla 2015-16an eta 2016-17an

	2015-16	2016-17	Δ Azken urtea
Bigarren Hezkuntzako kidegoak eta ordainpeko langileak	7.912	8.107	195
Maisu-maistren kidegoa	1.133	1.071	-62
Funtzionamendu plantilla guztira	9.045	9.178	133

Unitate eta ikasle kopurua handitu egin da etapa guztietan, Batxilergoan izan ezik, non 239 ikasle gutxiago baitaude. Bigarren Hezkuntzako etapetan ikasgelako irakasle kopuruaren batez besteko ratioa apur bat jaitsi da (2,62tik 2,60ra), eta irakasleko ikasle ratioa eta ikasgelako ikasle ratioa ere %0,7 eta %1,2 murriztu dira, hurrenez hurren.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako unitateen eta ikasleen bilakaera etapaka. 2015-16 eta 2016-17 ikasturteetako aurre-matrikula.

		2015-16	2016-17	Azken ikasturtea	
Unitateak edo ikasgelak (aurre-matrikula)	DBH	1.781	1.836	55	%3,1
	Batxilergoa	567	575	8	%1,4
	Lanbide Heziketa (CM eta CS)	1.027	1.030	3	%0,3
	Hezkuntza Berezia eta AAT, ikasgela itxiak	82	84	2	%2,4
	Unitateak guztira	3.457	3.525	68	%2,0
Ikasleak (aurre-matrikula)	DBH	37.966	39.483	1.517	%4,0
	Batxilergoa	14.921	14.682	-239	-%1,6
	Lanbide Heziketa (CM eta CS)	19.877	20.553	676	%3,4
	Hezkuntza Berezia eta AAT, ikasgela itxiak	520	521	1	%0,2
	Ikasleak guztira	73.284	75.239	1.955	%2,7
Irakasleak: funtzionamendu plantillak		9.045	9.178	133	%1,5
Irakasle / ikasgela ratioa		2,62	2,60	-0,01	-%0,5
Ikasle / ikasgela ratioa		21,20	21,34	0,15	%0,7
Ikasle / irakasle ratioa		8,10	8,20	0,10	%1,2

III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Dekretu proiektuko datuen banakatzean ikus daiteke Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako (BHI) plantilla organikoa berdin mantendu dela aurreko ikasturtekoarekin alderatuta: maisu-maistren kidegotik desagertu diren 144 plazak bigarren hezkuntzako lanpostu bihurtu dira. Bestalde, HHE zentroetako LPZ ofizialean 5 plaza gehiago daude, UHEIn 2 plaza gutxiago daude, eta gainerakoak mantendu egin dira.

Funtzionamendu errealeko plantillei dagokienez, iaz baino 133 plaza gehiago daude, eta aurre-matrikulako datuen arabera, 1.955 ikasle eta 68 ikasgela gehiago ere bai. Horrek esan nahi du ikasle/ikasgela eta ikasle/irakasle ratioak pixka bat hazi direla, eta irakasle/ikasgela ratioa pixka bat jaitsi dela.

Ondorioz, ratioak apur bat txikitu diren arren, Kontseiluak uste du ratio horiek araudiak ezarritako mailen azpitik daudela oraindik, eta hori positiboa dela. Horregatik nahiko luke bide beretik jarraitzea.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2016ko irailaren 22a
IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Sin.: Maite Alonso Arana